

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0092	Ehorzketa udal hilerrian eta nitxoaren emakida, hala denean
---	---------------	--

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Ehorzketa motaren arabera, hauen artean aukera daiteke:

Gorpua ehortzi: bat dator panteoietan, nitxoetan eta hilobietan egiten den ehorzketarekin.

- Hilobia: Etxanoko udalerrian baino egiten ez den lurreko lurperatzea.

Errautsak uztea: panteoietan, nitxoetan, gorpuzkien nitxoetan, kolunbarioetan edo hilobietan egiten da.

- **Kolunbarioa:** Errautsak ehorzteko erabiltzen den errautsetarako nitxoa.

Gorpuzkiak uztea: panteoietan, nitxoetan, gorpuzkien nitxoetan edo hilobietan egiten da.

1992ko azaroaren 27tik aurrerako emakidek iraupen mugatua dute:

- Ehorzketak nitxoetan: 10 urte
- Gorpuzkien nitxoak: 75 urte
- Kolunbarioak: 50 urte

NORK ESKA DEZAKE?

Pertsona fisiko edo juridikoak edo bere lege ordezkariak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E057 Nitxoa esleitzeko eskaria](#)
- [E060 Hobiratze eskaera](#)
- [E099 Lehenengoz erabiltzeko nitxoaren hilarriko letrak](#)
- Nortasun Agiria: NAN/NIE.
- Gorpua: Ehorztetxea da beharrezko dokumentazioa aurkeztu behar duena.
- Errautsak: errausketa ziurtagiria.
- Beste hilerri batetik ekarritako gorpuzkiak: Osasun Lurralde sailak emandako leku aldaketarako baimena.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

ZENBAT KOSTATZEN DA?

01 - Udal Hilerriko Tasak	
Lehenengoz erabiltzeko batentzako nitxo-esleipen bakoitzeko	492,49 Euro
Lehenengoz erabiltzeko birentzako nitxo-esleipen bakoitzeko	1.896,03 Euro
Lehenengoz erabiltzeko batentzako nitxoa gehi hondarrentzako nitxoan esleipen bakoitzeko	1.516,57 Euro
Hondarrentzako nitxoan esleipen bakoitzeko	1.024,18 Euro
Lurperatze, desobitze edo leku-aldatze bakoitzeko	56,49 Euro
Lurperatze, desobitze edo leku-aldatze bakoitzeko (zinkeko kutxarekin)	109,23 Euro
Kolonbarioko emakida bakoitzeko	395,65 Euro
Zinkeko kutxa erosteagatik	52,74 Euro

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Hilabete 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Amorebieta-Etxanoko udal hilerrien barne araubidearen erregelamendua.](#)
- [202/2004 Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Erregelamendua onartzen duena.](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1- Ehorzteko eguna eta ordua eskatu.

2- Ehortzi

3.- Nitxoaren tapan idatzi nahi den testua aurkeztu inprimakian (hobiratu ondorengo 15 egunetan)

Familiako panteoian:

- Panteoia ireki ehorzketarako: izapide hori udal buleguetan egin behar da, ehorzketa aurretik. Panteoiaren titularrek baino ezin izango dute eskatu horren irekiera, heriotza bat gertatzen denean. Hildakoa titularra bada, gertuko edozeinek sina dezake eskaria.
- Izapide horren bitartez, panteoia titularraren baimen barik ez zabaltzea bermatzen da.

Ehorzketa egiteko baimena duten familiako hilobiaren titularrak nortzuk diren egiaztatu nahi izanez gero, kontsultatu gure bulegoan.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Arlo Teknikoa - Azpiegiturak eta zerbitzuak

OHARRAK

Informazio gehiago

Telefonoz: 946300161 (Bulego teknikoa)

Bide telematikoz: www.amorebieta-etxano.eus

bulegoteknikoa@amorebieta.eus